



Gai Orokorren Kontseiluaren bilera (EBTaren 50. artikulua)
Brexitaren negoziazio egoera
Bruselan, 2018ko maiatzaren 14an

Europar Batasuneko (guztiak Erresuma Batua izan ezik) 2018ko maiatzaren 14an elkartu ziren Brexitaren negoziazio egoerari buruz eztabaidatzeko. Bileran, ateratze akordioaren proiektua, Erresuma Batuarekin etorkizuneko harremanak eta Europar Kontseiluko (50. art.) datorren ekaineko bileraren prestaketa landu zituzten.

Michel Barnierrek, EBeko negoziatzaile buruak, *Brexitari* buruzko negoziazioen berri eman zion 27 Estatu kideen Kanpo Harremanen ministroek osatutako Kontseiluari. Martxoaren 23an egindako Europar Kontseiluaren azken bileratik, bi negoziazio erronda egon dira: apirilak 16-18 eta maiatzak 2-4. Hala ere, Barnierrek adierazi zuen ez direla aurrerapauso esanguratsurik eman eta irteerako akordioan adostu gabe dauden gaiak lantzen jarraitzeko beharra dagoela.

Ateratze akordioaren proiektua

Martxoaren 19an, bi aldeetako negoziatzaileek ateratze akordioaren proiektua aurkeztu zuten. Bertan zenbait gaitan lortutako akordioak jasotzen zituzten, besteak beste, herritarren eskubideak, finantzen likidazioa, trantsizio aldia eta banantzeari buruzko beste gai batzuetan. Hala ere, adostutasunik gabe dauden gaiak lantzen jarraitu behar da.

Gai nagusienetako bat Irlanda eta Ipar Irlandaren arteko muga da. Negoziatzaileek ados daude lege testuaren zati bezala legez bideragarria den “*backstop solution*” edo babes mekanismo bat jasotzearekin, beste irtenbide baten gabezian aplikatuko litzatekeena. Helburua muga gogor bat saihestea da, baina oraindik ez da muga gogor hori saihestuko lukeen irtenbide eraginkor egokirik zehaztu.

Era berean, zehaztu gabe daude gobernantza orokorra eta ateratze akordioaren inguruko auziak konpontzeko mekanismoa; baita jabetza intelektuala, datuen eta informazioaren trukaketa edo Euratomak.

Etorkizuneko harremanak: adierazpen politikoa

Negoziatzaileek Erresuma Batua eta Europar Batasunaren arteko etorkizuneko harremanen eremua eztabaidatzen hasi dira, erretiratze akordioari atxikiko zaion adierazpen politikoa jasoko den elkar aditzea lortzeko.

Eremu honetan EBaren posizioa martxoak 23an Europar Kontseiluak aurkeztutako orientazioetan islatu zen. Orientazio hauek Erresuma Batuak merkatu bakarretik eta aduana-batasunetik ateratzeko duen asmoa kontuan hartzen zuten, beti ere hurrengo printzipioak errespetatzen:

- Eskubideen eta betebeharren arteko orekaren beharra
- Bidezko konpetenziaren baldintzen bermatzeko beharra
- Estatu ez kide batek ezin du Estatu kide baten eskubide berberak izan, betebehar berberak ez dituenean
- EBeko lau askatasunen zatiezintasuna
- Merkatu bakarrean alorka parte hartzearen ezintasuna, merkatu bakarraren funtzionamendua desitxuratu dezakeelako
- EBk erabaki hartzean bere autonomia mantenduko du
- EBEJren zeregina guztiz errespetatuko da

EBko orientazioek Erresuma Batuarekin harreman estuak mantentzearen alde egiten zuten, bai merkataritza eta ekonomia lankidetzan, bai beste eremu batzuetan, bereziki terrorismoaren eta nazioarteko krimenaren aurkako borrokan, eta segurtasun, defentsa eta kanpo politikan ere. Harreman ekonomikoari dagokionez, 27 Estaturen liderrek merkatu libreko akordio batera iristearen aldeko jarrera berretsi zuten.

Ekainean ospatuko den Europako Kontseiluko (50.art.) bileraren prestakuntza

Europako Kontseiluko (50.art.) hurrengo bilera prestatzen hasi da. Bilera ekainaren 28 eta 29an egingo da eta bertan Estatu kide guztien gobernu buruek ateratzeari buruzko konpondu gabeko gaiak eta negoziazioen egoera aztertuko dute.